



ZERBITZUGUNEA ERABILTZEKO ARAUAK

- Udal ordenantza, autokarabanetarako Iruñeko zerbitzugunean autokarabanak edo etxebizitza-ibilgailuak aparkatzea eta gaua pasatzea arautzen dituen.
- Arau fiskala, autokarabanetarako Iruñeko zerbitzugunean karabanak edo etxebizitza-ibilgailuak aparkatu eta gaua pasatzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak erregulatzen dituen.
- Webgunea: <http://www.pamplona.es/autocaravanas>

- 1) Aparkatu daitezkeen ibilgailuak: bakarrik **etxebizitza-ibilgailuak** (fitxa teknikoaren zk.ak: 2448, 3148, 3200, 3248, 3300 edo 3348).
- 2) Prezio publikoa **ordaindu** beharra dago.
- 3) Aparkatutako ibilgailuek **errespetatuko** dituzte beti ere plaza bakoitzaren mugak eta **ibilgailuaren atzeko alde** zirkulazio-erreirantz dagoela aparkatuko dute.
- 4) **Gehienez 48 orduz jarraian egon daiteke** aparkaturik zerbitzugunean. Aparkaleku-plaza utzi eta gero ezin izanen da zerbitzugunean aparkatu astebete igaro arte plaza utzi zenetik.
- 5) **Ur gris eta beltzak botatzeko gehienez ere 45 minutu erabil daitezke.** Gaua bertan pasatzen ez duenak dagokion prezio publikoa ordaindu beharko du zerbitzu horregatik.
- 6) Biltegiak husteko eremuan ezin izanen da aparkatu, ezta oztoporik sortu ere xede horretarako erabiltzen ari ez delarik.
- 7) Espresuki **debeku** da edozein ibilgailu mota **garbitzea**.
- 8) **Debeku** da **kanpatzeko tresnak** paratzea eremu publikoan zein aparkatzeko plazetan, hala nola mahaia, kadirak edo olanak, leku espresuki baimenduetan ez bada.
- 9) Erabilitako eremua **garbi** utzi behar da erabili ondoren. **Sarrera ondoko aldean**, suhiltzaileen parkearekiko lursail mugakidean, bada eremu bat **gaikako zabor-bilketarako ontziekin**.